

EUSKAL-FĒSTAK DONIBANE GARAZIN



Otoiztu dut Sarako jaun erretora, jakiteko zerbeit, Madalen Larralde Sarako martiraren gainean, zoinaren istorioa ezagutua baita arras ongi Sarako jendez. Jaun erretorak egorri nau lan ori.

Ene primak emanak izanen dire Donibane Garazin, buruilako illabetian. Orok suyeta bera izanen dute; au da: «MADALEN LARRALDE SARAKO MARTIRAREN ISTORIOA». Chuchen den berela primak izanen dituzte obekiena istorio oripresentatzen dutenek.

Lan oriek errezebituak izanen dire Lasserren imprimerian, Bayonan, Gambetta-ren karrikan, uztailaren leen arte.

Aditu dut Askaindar baten ganik neskatcha ori *Magnificat* kantatuz zuala gillotinarat. Sarako jaun erretorak eta bertze frangok erran dute kantatzen zuela *Salve Regina*. Menturaz biak kantatzen zituen. Guzien gainetik neskatcha eskualdun ori izan da martirak bezen andi, zeren naiago izan duen il, ezen ez gezur tipi bat erran.

Badakite guziek Eskualdun gizonak fechoak direla; bainan nai nuke jakin dezaten ere, Eskualdun emazteak fechoago direla.

ANTUN ABBADIA, Subernoarra.

MADALEN LARRALDE, SARAKO MARTIRA-REN KONDAIRA

Duela mende bat zen, chuchen chuchena mintzatzeko; milla zazpi eun eta lauetan ogei eta amalauean: Frantzia guzian, Eskual-erria barne, nausituak ziren gaiſtaginak, Jainkoaren etsaiak. Elizak etsiak ziren edo aberetegi bilakatuak, il etzituzten apezak, gordeak edo iesi guanak. Ez mezarik, ez sakramendurik errietan, ichilka baizen, eta gaiz-